

Martxoaren 10eko 2/2005 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzkoa

(BAO martxoaren 11koa)

174. artikulua.—Enbargo-eginbidea eta prebentziozko idaztoharra

1. Enbargo-jarduketa bakoitza eginbide baten bidez dokumentatuko da eta eginbide hori jarduketa egiten den pertsonari jakinaraziko zaio.

Ondasunak eta eskubideak enbargatu eta gero, eginbidea jarraian adieraziko direnei jakinaraziko zaie: zergapekoari eta, beharrezkoa bada, ondasunen titular, edukitzaile edo gordailuzainari, baldin eta jarduketak berarekin egin ez badira; zergapekoaren ezkontideari, ondasunak irabazizkoak badira, edo izatezko bikotekideari, maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikoteak hitzartutako erregimen ekonomikoaren arabera ondasunak irabazizkoak badira; ondasunen jabekide edo titularkideei.

Eginbide hori zergapekoaren ezkontideari edo aurreko paragrafoan aipatutako izatezko bikotekideari ere jakinaraziko zaio beraien erregimen ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa denean.